



M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL AGURGA-
RRIAREN IDAZKARI NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2011ko otsailaren 22an, beste batzuen artean ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA PASEALEKUETAKO ZUHAZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE ZERBITZUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Oiartzungo Udalerrian dauden berdegune, parke, lorategi eta pasealekuetako zuhaztien garbitasuna, zainketa eta mantentze zerbitzua esleitzeko proposamenari buruz Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostena ikusirik, aho batez berau onartzea erabaki da, honela dio:

“AURRETIAZKO GAIA.- Kontratu honen gai den espedienteari 2010eko urriaren 27an Oiartzungo Udal Osoak hasiera eman zion, kontratazio organo bezala, baina eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarena da, bai espedienteari hasiera emateko bai esleipena egiteko, kontratuaren zenbatekoa aintzat hartuta.

Halere, Tokiko Gobernu Batzarraren kide guztiak Udal Osoarenak dira ere, eta espedienteari hasiera emateko aipatutako erabakia aho batez hartu zuen Udal Osoak. Hori dela eta, akatsa jaso zueneko erabakia boliozkotu egingo da eta kontratu honen esleipena, dagokion bezala, Tokiko Gobernu Batzarrak egingo du, aipatutako datatik atzeranzko balioaz.

BEREZ TXOSTEN HONEN GAIARI DAGOKIONEAN, 2011ko otsailaren 10eko Oiartzungo Alkatearen 89 zk.ko Dekretu bidez Oiartzungo lorezaintza zerbitzua kontratatzekeko prozeduran proposamenik onuragarriena EULEN enpresarena dela erabaki da.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikuluekin adostasunean hamar egun balioduneko epea eman zaio behin-betiko bermea eratzeko eta eratu duela egiaztatzeke eta erantzunkizun zibileko aseguru poliza aurkeztu edo duela egiaztatzeke, eta hala egin du EULENek.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.3 artikuluen arabera errekerimendua bete eta hurrengo bost egun baliodunen barruan egingo da esleipena.

Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrari **PROPOSATZEN ZAIO:**

1.- Lizitazioa onartu eta 2010eko urriaren 27ko Oiartzungo Udal Osoaren erabakia baliozkotzea, atzeranzko balioaz.

2.- 6.923,40 Euroko bermea jarrita aseguru poliza aurkeztuta, “Oiartzungo Udalerrian dauden berdegune, parke, lorategi eta pasalekuen zuhaztien garbitasuna, zainketa eta mantentze zerbitzua”ri buruzko kontratua EULEN S.A.ri esleitzea, lehenengo urterako 138.468,04 Euroko prezioan, gehi 24.924,25 Euroko BEZa, eta 2 urteko egikaritze epearekin. Ordainketa Udal Aurrekontuen 0502.227.449.00.99.2011 partidaren kontura egingo da.



3.- Proposamenak aurkeztutako lizitatzaleei jarritako behin behineko bermea bueltatzea.

4.- Aldizkari Ofizialen argitalpen gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

5.- Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.

6.- Ebazpen hau jakinaraztea eta kontratatzaileen profilean argitaratzea.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluen arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta hamaikako otsailaren hogeita eta hiruan.

